

Ezpalak

JON TORNER

Gatillazo musika talde arabarrak *Dianas Legales* (Maldito Records) bere bigarren diskoa kaleratu du. Evaristok eta enparauek hilaren 21ean hasiko dute aurkezpen bira, Garesen (Nafarroa). Hurrengo kontzertua Oñatin (Gipuzkoa) eskainiko dute, maiatzaren 18an.

Kirmen Uribe *Bitartean heldu eskutik* (Susa, 2001) liburuaren ingelesezko itzulpena aurkeztu du Manhattanen, New Yorken. *Meanwhile Take my Hand* liburuko poemak Elizabeth Macklinek itzuli ditu, PEN Klubak emandako beka baten laguntzaz.

Eloisa Montoya argazkia eta pintura uztartzen dituen *Huellas* izeneko erakusketa paratu du Gasteizko Ignacio Aldecoa kultur etxean. Paisaiaren eta arkitekturaren ezkutuko alderdien inguruan gogoeta egitera bultzatzen duten obrak maiatzaren 13a arte izango dira ikusgai.

Patxi Basabe zinemagile gasteiztarrak laugarren film laburra estreinatu zuen pasa den astean Artiumeko auditorioan. *Le protecteur* izeneko hogei minutuko filma Gasteizen grabatu du Basabek. Karra Elejalde, Gorka Aginagalde, Txema Blasco, Juantxo Lopez eta Ramon Barea aritu dira aktore lanetan eta Bingen Mendizabalek jarri dio musika.

Damian Muñoz koreografo gasteiztarrak Virginia Garciarekin batera sortutako *Staff* ikuskizuna Gasteizko Jesus Ibañez de Matauco Antzokian eta Lasarteko Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da ikusgai hilaren 19an eta 27an, hurrenez hurren. Eusko Jaurilaritzak sustatutako III. Dantza Zirkuituaren barruan daude emanaldi horiek.



Poloniako zinema omenduko du Gasteizko NEFF jaialdiak

Maiatzaren 2tik 12ra egingo da Gasteizko NEFF Europako Zinema Berrien Jaialdia. Aurtengo edizioak Poloniako zinema omenduko du. Hala, Roman Polanski, Krzysztof Kieslowski eta Andrzej Wajdaren lanak erakutsiko dituzte. Halaber, Kieslowskiren filmetako kartelen erakusketa ere egingo dute. Albokoa *Trzy Kolory: Bialy* (*Hiru kolore: Zuria*, 1994) filmaren gaztelaniazko bertsioaren kartela da. Horrez gain, Poloniako musika ezagutzeko aukera eskainiko du jaialdiak. Sail ofizialean 72 film lehiatuko dira: 12 film luze eta 50 labur. Orotara hamar sari emango ditu jaialdiko epaimahaiak. Film gehienak Florida eta Guridi zinema aretoetan proiektatuko dituzte eta aurrenekoz, Boulevard zentroko Abaco aretoak ere bisitatuko ditu NEFF jaialdiak. Inaugurazio eta itxiera galak Principal antzokian egingo dira, maiatzaren 5ean eta 12an. Bigarrenean, Carlos Nuñez musikariak *Cinema do mar* diskoa aurkeztuko du. Informazio gehiago: www.neffestival.com.



Elena Odriozolak *Euskonens & Median*: «Normalean nahi dudana egiten dut baina batzuetan zentsura modukoa pasa egin behar da (...) Batzuetan tokatu zait ikustea nola 'ikutzen' dituzten nire marrazkiak, batez ere Ingalaterran; ba marinel kapitain bati pipa kendu 'erretzen zegoelako', edo ardo basoa ere bai! Nik nire bizitza osoa eman dut ikusten nola edaten duten eta nola erretzen duten marinelak eta ez naiz drogadikta bat horregatik! Baina argitalexaren arabera da hori; beste batzuetan, Elkar-en adibidez, benetako askatasuna dago eta nahi dudana egiten dut».

Koldo Bigurik *Deian*: «Literatura itzultzea nire ustez idazle batentzat egon daitekeen eskolarik onena da, behartzen zaituelako norberaren idaz-ohituretatik urruntzen eta zure teknikak zabaltzen eta, beraz, aberasten. Euskara bezalako hizkuntza batera itzultzen dugunean, uste dut idazle bihurtzen gara».

neurri handian, euskararen berezitasun lexiko eta sintaktikoengatik ezin baitiogu orpoz orpo jarraitu jatorrizkoari: beti pentsatu dut sormen-gaitasun handiagoa ipini behar izaten dugula lanean euskal literatura itzultzaileok».

Fermin Muguruzak *Garan*: «Orain dela hiru urte, kontzertu asko bertan behera geratu ziren. Azkenean, Rivas-Vaciamadridenten jo genuen, baina, hori zela-eta, antolatzaileek sekulako mehatxuak izan zituzten. Dena dela, ni ez nago Madrilen edo Espainian bakarrik betatuta. Euskal Herrian bertan Gasteizen edo Iruñean jotzeko arazoak ditut, eta hori ere esan beharra dago (...) Zuzeneko musika osasuntsu dagoela esango nuke nik. Bestelako kontua da talde berriek espazio propioa lortzea gero eta zailagoa dutela. Nik uste dut diskurtso propioak defendatu behar direla eta belaualdi berrien presentziaren gakoak oholztetan hor dagoela».

Gazteak izango dira protagonista Baionako Maimorables jaialdian

“**KULTUREN DEMOKRATIZAZIOA**” izango du xede maiatzaren 2tik ekainaren 3ra bitartean Baionan egingo den Maimorables jaialdiak. Sustatzaileen hitzetan, egitaraua osatuko duten ekimenen bitartez “gazteek adierazpide artistiko ezberdinak entseatzeko” da helburua: “horrekin karrera bati hasiera eman diezaioke edo, besterik gabe, esperientzia berriak bizi”. Jaialdiak Baionako alde txiroenetako herritarrengana heldu nahi du eta horretarako, ekitaldi ugari Gurutze Saindu Garaiko auzoetan egingo dira. Bestalde, Bokalen eta Angelun ere izango da zer ikusi eta entzun. Egitaraua zabala prestatu dute antolatzaileek, baina hiru lehiaketa nabarmendu daitezke: artea sustatzea xede duen Talentu Gazteen Trofeoa, Euskal Herri osoko dantzari taldeak bilduko dituen Hip Hop Battle lehiaketa eta estilo guztietako musikarientzat zabalik izango den Musiken Deialdia txapelketa.

Abian da Baigorriko Kulturaldia

BAIGORRIKO KULTURALDIA hilaren 13an jarri zen abian, bertso afari batekin. Asteburuan ekitaldi gehiago izan dira eta aste honetarako eta hurrengorako ere Basaizea elkarteak egitarau oparoa prestatu du. Asteartean (17) Zirika Zirkus taldearen ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen, besteak beste. Ostiralean (20) euskal kulturaren egoeraz eztabaidatuko dute hamar elkartetako ordezkariak, larunbatean (21) kantu afaria izango da Urepelen eta igandean (22) Antton Lukuren *Baionan bizi* antzezlanaren aurkezpena. Hurrengo igandean (29), bestalde, kultur ekitaldi franko izango da Nafarroaren Egunaren baitan.

Koldo Izagirrek uko egin dio Kritika Sariari.

Espainiako Literatur Kritikarien Elkarteak Jon Alonsoren *Erretzaileen eremua* eta Koldo Izagirreren *Rimmel* lanak saritu ditu aurten, euskarazko narratibaren eta poesiaren alorreko Kritika Sariarekin, hurrenez hurren. Koldo Izagirrek ordea, uko egin dio sariari. Idazlearen ustez, “Kritika Saria, Euskadi Saria bera baino mekanismo ilunagoz eta jokamolde zakarragoz dabilen antolamendua da. Literaturaren promozio bidea baino, gure letren sistematzoko zenbait mandarinen tresna bihurtua dela dirudi”. Jon Alonsok **ARGIA**ren Euskal Kulturaren Urtekarian idatzitako Euskadi Sariak artikulua eta horrek sortutako mugimenduak ere bere erabakian eraginik izan duela azaldu du Izagirrek.

HISTORIAREN EUSKAL CURRICULUMA, IRITZI EZBERDINAK

Historialari Euskaldunen IV. Topaketak

Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia, Gasteiz
2007ko apirilak 26

Izena emateko:

Martxoaren 15etik apirilaren 20ra

www.ueu.org



Udako Euskal Unibertsitatea